

# B

BARREN

## Taupadaren 'Isladak' Herriko Antzokian

TOKIKOM





Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



**Elgoibarko Herri Eskola**  
Kalamua, 8  
Tel.: 943 74 08 79  
E-posta: [012777aa@hezkuntza.net](mailto:012777aa@hezkuntza.net)


## Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Otsailak 6

### MATRIKULAZIOA

2010 - 2011

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

### OTSAILAREN 1etik 12ra



**Elgoibar Arreiturre BHI**  
San Roke, 11  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: [www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)



## Eskerrik asko, andereño

Interesez jarraitu ditut ikastoletako lehen andereñoak omentzeko egin diren ekitaldiak. Ikastolen sorrera garai hartan, gure hizkuntzaren iraupena eta normalkuntza bultzatzeko beharrezkoa ikusi zen euskara hezkuntzan sartzea. Horrek ez zigun bere erabilera eta hedapena ziurtatzen, baina hori gabe ez genion etorkizunik ikusten gure hizkuntzari. Gaztelera hutsean funtzionatzen zuen eskola eredua irauli zuten ikastolek.

Ez da erraza egungo egoeratik garai hartako gurasoek egindako apustu gogorra bere neurrian baloratzea. Orduko ordenamenduarekin hautsi eta sistematik kanpo zegoen eskolara, ikastolara, eraman zituzten umeak. Ez zekiten bertan ikasitakoak baliorik izango zuen, ez zekiten legalki onartuak izango ote ziren, eta ez zekiten ikasketetan aurrera egiteko aukerarik izango zuten. Irakasleek ez zuten titulaziorik, ez zegoen baimenik lokal haietan eskolak emateko, eta bazekiten ikastolan zailtasun handiak izan zitzaketela erregimenak partitzen zuen *Cartilla de Escolaridad* hura lortzeko. Ikastolen etorkizuna ez zegoen batere argi, eta lege aldetik eragozpenak baino ez zeuden. Eta hala ere, ikastolara bidali zituzten beren seme-alabak. Gurasoek asko arriskatu zuten.

Umeak beraien maitasun, lan eta sakrifizio guztiarekin atenditu eta hezi zituzten irakasleek. Herri osoak babesa eta laguntza eskaini zuten ikastolak martxan jartzeko. Eta lehen

gurasoek zeukaten hobereena jarri zuten mahai-jokoan: beraien seme-alabak. Garai hura ezagutu genuen guztiok gogoan ditugu helburu horren alde borrokatu zutenak. Baina Elgoibarko Ikastola herri osoaren lorpena izan zen, denek jarri baitzuten bere aldetik.

Euskarak iraungo badu, komunikazio tresna egoki eta baliagarri moduan aurrera egingo badu, ezinbestekoa du haur guztiak euskaraz hezte, eta gutxienez uler ezaguera denek edukitzea.

Juan Jose Araolaza



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

**“Euskarak iraungo badu,  
ezinbestekoa du haur guztiak euskaraz hezte”**

# FESTA ITALIARRA SALENTO PIZZERIAN

- 🕒 **Otsailak 6, zapatua, eta 7, domeka, eguerdian 2 pizza 1 en prezioan**
- 🕒 **Zapatu gauean eta domeka eguerdian tabernari akrobatikoak Italiatik etorriak**

ZATOZ SALENTORA IKUSTERA!  
ZUEN ZAIN GAUDE

# Lurrikarak azaleratutako hondamendia



Misio-taldekoak, bidezko merkataritzako saltokian. Gaur eta bihar Haitirako jana bilduko dute bertan.

Hiru aste joan dira Richer eskalan 7,3 indarreko lurrikara batek Haitin hondamendia eragin zuenetik. Astindu bortitz hark milaka etxe eta aterpe eraitsi zituen, eta 200.000 lagun baino gehiago hil, Nazio Batuen Erakundearen arabera. Ezerezarekin bizitzera ohituak zeuden haitiarrak, baina lurrikara batek azpian hartu behar izan ditu mendebalde hango bizi ezinezko jabetu zedin. Izan ere, hedabideetan egunero ikusten ditugu hango irudiak. Muturreko pobrezia irudi gordinak dira, berriemaileak etxera itzuli arte albistegietako laburpen guztietan agertuko direnak. Elgoibarko San Bartolome parrokiako Misio Taldekoek ere arretaz jarraitzen dute Haititik iristen den informazio apurra, sufrimendu hark izen-abizenak dituelako eurentzat.

**Ainara Argoitia**

**M**isio Taldekoek hasitako kanpaina baten barruan, Elgoibarko 32 familiak Haitiko ume bana dute apadrinatuta edo babestuta. Port au Prince hiriburuko haurrak dira guztiak, lurrikaran kalte handienak izan zituzten Cite du Soleil auzokoak, hain justu ere. Haitiko anabasan beti baztertu den ingurukoak, bestera esanda. Ume horiek babesten dituzten elgoibartarrek urtero-urtero diru kantitate bat ematen dute haietaz, botikak erosteko eta eskolako gastuak ordaintzeko erabiltzen dena, besteak beste. Haitiko kasuan, Port au Princen bertan lan egiten duten karitateko mojek kudeatzen dute gero diru hori. "Premia handiena dutenen ondoan lan

egiten dute, eta gure misio taldeak harreman zuzena dauka ordena horrek Madrilen daukan egoitzan lanean ari direnekin, COVIDEkoekin", zehaztu digu Marisabel Aizpurua San Bartolome parrokiako Misio Taldeko kideak.

Hala ere, eta eginahalak egin ahala, lurrikara izan zenetik apenas jaso duten berririk Haititik. "Umeei buruz ez dakigu ezer. Dakigun bakarra da moja horiek Port au Princen zituzten hiru eraikin behera etorri direla, eta mojetako bat hil eta beste bat zauritu direla. Ez dakigu askorik, baina ez dago gehiago jakin beharrik zein egoeratan dauden imaginatzeko", dio Marisabelek. Ezer gutxi izanda ere, asko da han, eta horregatik dei egiten diete herritarrei



# “Kontserbak, pasta, garbantzauak, olioa... galtzen ez diren produktuak bilduko ditugu Haitira bidaltzeko”

Misio Taldeak hasitako kanpaina parte hartzeko. Izan ere, Haiti munduko herrialde pobreenetakoa zen lurrikara aurretik ere. Hamar lagunetik bederatzi nazioarteak emandakotik bizi ziren, biztanleen %47k ez zekiten irakurtzen eta ezta idazten, eta bizi itxaropena 52 urtekoa zen. Etorkizun handirik gabeko herrialdea zen, herrialde ahaztua, urteetan diktaduraren itzalean bizi izandakoa.

Bizirauteak du, baina, orain lehentasuna Haitin. Horregatik, Elgoibarko misio-taldeak elikagaiak batzeko kanpaina hasi du aste honetan bertan, Ordiziako Herria Elkar Lanean eta Irungo Behar Bidean taldeekin batera. Janaria eta botikak batuko dituzte guztien artean. Elgoibarren, hala ere, jatekoak bilduko dituzte bakarrik. “Kontserbak, pasta, garbantzauak, olioa... galtzen ez diren produktuak bilduko ditugu. Denbora luzean irauten dutenak. Bidea luzea da, eta ezin dugu besterik bidali”, azaldu du Marisabelek. Merkatu Plazan jasoko dituzte produktuak, bidezko merkataritzako saltokian. Denda hori hileko lehenengo eguen, barixaku eta zapatuetan zabaltzen dute, eta atzo hasi ziren Haitirako elikagaiak batzen. Gaur eta bihar ere zabalik izango dute saltokia, 10:00etatik 13:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara bitartean. Marisabel bera irakaslea da ikastolan, eta ikastetxe horretako ikasleek bat egin dute kanpainarekin. DBH2ko ikasleek sustatu dute, ikastolan janaria biltzeko.

Jatekoa biltzen arituko dira egunotan, baina haitiarrak diruz lagundu nahi dituenak ere badu horretarako aukerarik. Gobernu kanpoko erakundeek eta finantza erakundeek kontu korranteak zabaldu dituzte, eta Elgoibarko misio-taldeak ere badu berea, Euskadiko Kutxan. Bestalde, Elgoibarko Udalak aurrekontuaren %0,7 bideratzen du gara-

tzeko bidean diren herrialdeetarako, eta Misio Taldeak urtero aurkezten du proiektua. Aurtun, Ama Mesedeetakoaren kongregazioak Jacmel-en (Haiti) daukan jantoki baterako eguzki panelak erosteko eskatu zuten laguntza, eta Udalak onartu egin zuen proiektua. Orain, baina, lehentasuna janaria eta botikak lortzeko duela ikusita, diru horri beste erabilera hori emango diote.

## Herritarren zalantzak

Laguntza eskatzeko orduan kontziente dira herritar askoren mesfidantzaz. Hemen biltzen den laguntza bidean galtzen ote den kezka atzera botatzen ditu herritar asko, eta ikusi diren gauza batzuk ikusita, ulergarria ere izan daitekeela aitortu du Marisabelek. Hala ere, Misio Taldekoek batutakoa “oso-osoan” iristen dela nabarmendu du: “Nik garbi esan dezaket konfiantza osoa izateko gure taldearengan. Guk hemen biltzen duguna iritsiko da Haitira, han bertan lanean ari direnkin harreman zuzena dugu-eta”. Horren harira, tarteka-tarteka babes-tuta dituzten Haitiko umeen informazioa jasotzen dutela azaldu digu Marisabelek. “Umeen fitxa moduko bat jasotzen dugu, haien gurasoen eta bizi diren lekuaren nondik norakoak azaltzen dituen, eta baita haien egunerokoaren inguruko informazioa ere. Eskolako notak ere bidaltzen dizkigute”. Nolanahi ere, beti ez da hala izaten. “Leku guztietan ez dituzte baliabide berberak. Beti ezin da. Ume bat besoetan hartzen duenakin jakin behar du beti ez duela berak nahi bestetan jasoko informazioa, eta ezer ez jasotzea ere gerta daitekeela”, nabarmendu du. Behar handienekoei laguntzeak ez dakarrelako derrigorrean trukean ezer jasotzerik.



Elgoibarko familiek babestutako bost ume.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Kutxanet zerbitzua dela-eta**

Badira hilabete batzuk Elgoibarko kultura-ekitaldietarako sarrerak Kutxanet zerbitzuaren bidez erosi daitezkeela. Udalak, seguru, gauzak errazteko asmoz jarriko zuen martxan sistema hori. Galdera da: noren lana errazten du Kutxanetek? Jende askok ez daki Internet bidez sarrerak erosten. Gainera, erosketa egin ondoren, ezin dira sarrerak etxean inprimatu: Kutxako makinara joan behar da bila, eta makina horrek askotan arazoak ematen ditu. Baina txarrena da gestio-gastuak kobratzen dituztela. Nahiko garestiak dira jada kultur ikuskinak, eta, gainera, sarrerak erosteagatik komisioa kentzen digute. Gutxienez,

bi aukera egon beharko lirateke. Nahi duenak erosi ditzala sarrerak Internetez, baina Kultur Etxean erosteko aukera ere egon beharko litzateke.

I. A. ©

ESKERTZA

SEGUNDO RAIGOSO



*Egunak albiste txarra,  
negarrak dira lekuko,  
gizon handi bat joan zaigu,  
zintzoa eta gertuko,  
lagunekin solasean  
hitz egitea gustoko,  
zu beti egiteko prest  
ta zain guk zer eskatuko,*

*urte asko izan dira  
izan zaitugu alboko  
aita moduan zintugun  
urtetan guztiontzako,  
zure argia hor dago  
bidean du lagunduko,  
Segundo bihotzekoa  
ez zaitugu, ez, ahaztuko.*



Herriko Antzokia Elgoibarko Udala Kultura Salla

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILERAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldagi, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Eva Garcia



Miriam Garcia

Miriam, gaur nahiko korapilatsua den gertakari sozial bati buruz idazteko gogoz esnatu naiz: immigrazioaz. Gure gizartea emigratzaile foku igozle izan da betidanik, baina urte batzuetatik hona paperak aldatu dira, eta globalizazioaren alde irabazlean jausteagatik gure maila sozioekonomikoa erabat handitu da, eta immigranteen hartzaile bihurtu gara.

Horren ondorioz, hainbat pertsonen ezaguera ikaragarri zabaldu da, beste kulturak eta ohiturak ezagutzeko aukeraz baliaturik, tabuak hautsi dira eta tolerantzia zabaldu da. Baina beste kulturekiko interakzioak ez dira beti erraz gertatzen. Bereziki, immigrazioaren ondorioz arrazismoa eta xenofobia zabaldu dira. Jokabide horiek azaldu ditzaizketeen faktoreak ugariak dira, eta horietariko bat komunikabideen eragina izan daiteke.

### “Ez duzu uste immigrazioaz hitz egiten enpatia falta zaigula?”

Komunikabideek immigrazioa arazotzat aurkezten digute beti, eta ez dimentsio sozial edo milioika pertsonen bizi-proiektutzat. Immigrazioa krisia edo delinkuentzia bezalako arazoekin lotzen da. Beti irudi berberak erakusten dizkigute, eta oraindik immigrazio “ilegalari” buruz hitz egiten da. Ezagutzen ditudan pertsona gehienak ez dira etorkinekin erlazionatzen, eta haiei buruz daukaten irudia komunikabideen birtartez hartu dute. Baina begiak zabaltzen baditugu, konturatuko gara etorkin gehienak ez direla ez gizonak, ez *pateretan* etorriak, eta inola ere ez ilegalak.

Batzuetan Europarako bidaia arriskutsua da; batzuetan horrek familia guztia atzean lagatzea esan nahi du. Ez al duzu pentsatzen immigrazioari buruz hitz egiterakoan enpatia pixka bat falta zaigula?



Herrialde guztiak mugak bertan daudela ia konturatu gabe zeharkatzen ditugu, gure zirkulazioa librea delako eta mendebaldeko edonora mugitzeko askatasuna dugulako, baina beste herrialdeetako pertsonak ez dituzte eskubide berberak.

Gure egoera eroso honetatik, hesi fisiko, kultural, eta sozialak egunero zeharkatu behar duen pertsona baten bizitza nolako den benetan imajinatzea kosta egiten zaigu.

Beste pertsona baten tokian jarri ahal izateko pertsona horren errealitatea ezagutzeko beharrezkoa da. Beraz, noski, enpatia falta zaigu. Enpatia falta ezagueraren faltarekin lotuta dagoela pentsatzen dut nik.

### “Batez beste, etorkinek guk baino maila kultural handiagoa dute”

Bestalde, esaten duzun bezala, komunikabideek immigrazioa era guztiz negatibo batean erakusteak ezjakintasun hau bultzatzen du, eta gure gizartean bereizketa eta bazterketa sozialak indartzen ditu. Komunikabideek etorkina maila kultural eta sozial txikiagoa duen pertsona moduan irudikatzen digute gehienetan, eta gatazkekin lotzen dute. Oso gutxitan konturatzen gara askotan etorkinak gure batezbestekoak baino maila kultural handiagoa duela, eta inoiz ez da hitz egiten immigrazioa ikuspuntu ekonomiko, kultural eta demografikotik onuragarria izan daitekeenik.

Badakit estereotipoak saihestea ezinezkoa dela, baina behar bada gure auzokidea pixka bat gehiago ezagutzen hasiko bagina, immigrazioa prozesu sozial moduan eta ez arazo moduan ikusten hasiko ginatke.



Elgoibarko Udala



ELKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## Kaleko saltzaileak



Saltzaileak dira, eta kalean ateratzen dute jorna. Leku jakin bat dute herrian, eta hotz nahiz bero egin, hantxe ematen dute arratsalde-iluntze parte osoa. Hamabost urtetik gora daramatza batak Elgoibarrera etortzen, eta hogeitik gora, besteak. Gaztaina saltzailea eta txurreroa dira.

# ZU +

## ANTONIO HERNANDEZ

Txurro saltzailea

### “Krisi garaian ere goxoari nekez esaten diogu ezetz”

**Zenbat urte Elgoibarrera etortzen? Zer da aldatu da ordutik?**

Buff, kontua ere aspaldi galdu nuen, baina hogeita bost bat izango dira. Hasieran Plaza Txikian jartzen gintuzten, baina orain hogeita hiru bat urte leku hau izendatu ziguten, eta ordutik hemen gaude.

**Gustura zaude izendatu dizuten lekuarekin?**

Oraingoa askoz dut nahiago, bai. Plaza Txikian jarri gintuztenean neuk esan nien Udalekoei hurrengo urtean han egon behar banu etorri ere ez nintzela egingo. Ez genuen ezer saltzen. Hau joan-etorri handiagoko lekua da, eta gure ogibideak horixe dauka txarra. Jendea dabilen lekuan jarri ezean, jai.

**Nola antolatzen duzue urtea?**

Jaien araberako egutegi bat osatzen dugu urte hasieran. Elgoibarrera, sanbartolometan, trinitateetan eta Gabonetan etortzen gara. Gero, sanantonak pasatakoan, bi hilabete hartzen ditugu jai, Lazkaon sanprudentzioak hasi arte. Pilarikara arte, oso gogorra da.

**Urte osoan, atzera-aurrera. Noiz saltzen duzue, baina, gehiago?**

Txurroak, neguan, zalantzarik gabe. Udan, jaien inguruan, zerbait saltzen da, ohiturak bizirik jarraitzen duelako oraindik zorionez, baina askoz gutxiago. Tokiaren arabera ere izaten da. Euskal Herrian

txurrotarako ohitura handia dago, baina Espainia hegoaldean, apenas saltzen dugun txurrorik. Guk urte osoan produktu berberak izaten ditugu saltzen, baina udan freskagarriak eta patatak gehiago saltzen dira, eta urte sasoi honetan, berriz, txurroak gehiago.

**Krisirik igarri al duzue?**

Ez. Ni hasi nintzenean gehiago saltzen genuen, eta oso erraza izaten zen herri txiki batera joan eta ehun mila pezeta irabaztea. Orain, 600 euro irabazteko... Jendeak gutxiago erosten du, eta, gainera, gastuak handiagoak dira. Hala ere, ez dut uste krisiaren eraginez dela, ez behintzat krisiaren eraginez bakarrik. Nik uste krisi garaian ere goxoari nekez esaten diogula ezetz.

**Elgoibartarrek zer dute gustukoena?**

Beti-betiko txurroa asko saltzen da hemen, baina txokolatzekoek gero eta estimazio handiagoa dute. Porrak ere baditugu, baina hori Andaluziari lotutako produktua da gehiago. Elgoibarren bizi diren lau-bost andaluziarrek erosten dizkigute, baina bestela, inork ez.

**Zer da zuretzako gogorrena?**

Asteburuetan lan egin beharra, baina azkenerako ohitu egiten zara. Karabanan bizi gara, eta ez da erraza, ez pentsa.



# F NI

## JESUS LOPEZ

Gaztaina saltzailea



### “Valentziakoak izan dira aurtengo gaztainak. Bai, bai, Valentziakoak”

**Zenbat urte daramazu Elgoibarrera etortzen?**

Garbi esateko, ez dakit, baina hamahiru edo hamalau bat izango dira. Ermuan hasi nintzen, aitarekin, baina gero nire ama hemengoa da, eta hona etortzea erabaki nuen.

**Merkatu plaza aurrean ikusi zintugun Gabon bueltan, baina txurre-roak lekua kendu zizun gero.**

Bai, nik urtarilaren 10a arteko baimena daukat, eta gero, bera etortzen denean, nik alde egin behar izaten dut. Kontua da gaztaina sasoia ez dela urtero berdina izaten. Gaztainaren araberakoa da, eta normalean Gabonak buelta artekoa izaten da.

**Eta zuk non duzu nahiago?**

Zalantzarik gabe, han. Kale bera da eta ez du ematen horrenbeste alde egon behar denik, baina igartzen da aldea. Dena den, hona etortzerako asko jaitsita egoten da. Etorri berritan izaten dut nik estimazio gehien.

**Euskal Herriko gaztainondoak gaitzak jota omen daude. Nondik ekartzen dituzu zuk gaztainak?**

Leku askotatik ekarri ditut, baina aurtengoak Valentziakoak izan dira. Bai, bai, Valentziakoak. Asko harrituta gelditzen dira. Nik neuk

ere Valentzian bakarrik laranja zeudela pentsatzen nuen, baina itxuraz gaztainak ere hartzen dituzte. Mercabilbaora joaten naiz, eta hara iristen direnetatik onenak zeintzuk diren begiratzen dut. Onak izan behar dute, bai kalitatez eta baita prezioz ere, gero nik saldu eta irabaziren bat atera ahal izateko. Galiziatik ekarri izan ditut, Extremaduratik ere bai, eta aurtan, Valentziatik. Oso onak, gainera!

**Alderik bai kanpokoan eta hemengo bertakoen artean?**

Zuk eta nik igartzeko moduko alderik, ez. Elgoibarren hasi aurretik Ermuan egoten nintzen ni gaztainak saltzen, eta orduan Urretxun erosten nituen. Bertako gaztainak izaten ziren. Badira, hogei bat urte, baina, gaztainondoak gaixorik daudela. Hemengo gaztainak, ximur-ximurak, txikiak eta kokodunak dira. Gaixoak, hitz batean.

**Gaztaina denboraldia amaitzen denean, zertan aritzen zara?**

Elbarritasunagatik pentsio alu bat jasotzen dut, hilean 290 eurokoa, eta horrekin jai daukat. Hilean 600 euro ordaindu behar izaten ditut, etxearen errentagatik, eta edozerri kolpe egin behar izaten diot, aurrera egiteko. Mahats-biltzera edo fruta biltzera ere joaten naiz, sasoia iristen denean. Garai batean udan izozkiak saltzen ere aritzen nintzen, baina ez zuen apenas dirurik ematen, eta laga nuen.

Espainiako Gobernuak jubilazioa bi urtez atzeratzeko proposamena egin du.

## Zer iruditzen zaizu erretiroa 67 urtera luzatzea?



**Aitor Rodriguez**  
38 urte, banatzailea

Ez nago ados jubilazioa atzeratzeko erabaki horrekin. Gauzak hobetu beharrean txarrera egingo dutela iruditzen zait. Orain langabezia handia baldin badago, neurri horrekin gehiago egongo dela pentsatzen dut. Beste zeozer pentsatu beharko lukete.



**Erroka Castrillejo**  
39 urte, tailerreko langilea

Gaizki iruditzen zait. 67 urterekin jubilatzea tokatzen zaionarentzako neurri txarra da. Niri oraindik asko geratzen zait. Auskalo, hementik 30 urtera beharbada jubilaziorik ere ez da egongo. Egoera asko aldatu daiteke, eta ikusi egin beharko da.



**Maria Jesus Azpiazu**  
46 urte, etxeoandrea

Egia esaten badut, ez dut gai horri buruz gehiegi pentsatu. Jubilaziorako asko geratzen zait oraindik. Hala ere, ez dut uste ezer konponduko duenik. Nire inguruan ez dut horri buruzko gauza askorik entzun. Iritsi arte zain egon, eta ikusiko dugu zer gertatzen den.



**Aitor Goenaga**  
42 urte, makina automatikoko langilea

Gaizki. Jubilazioa atzeratzen badute, ez dugu izango bizitzaz disfrutatzeko astirik, eta, gainera, langabezia handitu egingo da. Jendea jubilatzeko desiratzen dago, eta momentua iristen denean bi urte atzeatzea oso gogorra da. Beste bide batzuk landu behar dira.

### ESKERTZA

## JUAN CARLOS PALACIOS URDIAIN



2010eko otsailaren 2an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### I. URTEURRENA

## PAKITA ZABALETA AZURMENDI



2009ko otsailaren 5ean hil zen.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, barixakuan, otsailak 5,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.







**Ermuaranbide kaleko espaloi berrian autoak aparkatzen dituzte:**


“Ermuaranbide kaleko bizilagunok borroka handia egin dugu espaloi berria egin dezaten. Azkenean lortu dugu, eta txukun geratu da espaloia, baina, orain, jendea autoak espaloi gainean aparkatzen hasi da. Badakigu aparkatzeko arazo handia dagoela Elgoibarren, baina horrek ez du ematen espaloi gainean aparkatzeko eskubidea. Udalarari pibote gehiago jartzeko eskatu nahi diogu”.



**Madalan errotonda biribila egin behar da:** “Urte asko daramatzagu erdibituko errotondarekin, eta nire ustez, Madalan askoz egokiagoa izango litzateke errotonda biribila jartzea. Zapatu gauean zortzi auto egon ginen semaforoan geldirik, eta errepidetik ez zen tarte horretan auto bat bera ere pasatu. Ez dauka zentzurik semaforo bidezko errotonda horrek, eta demostratuta dago askoz hobeto funtzionatzen duela errotonda biribilak”.

**Urasandi auzoko lurreko baldosak solte daude:**

“Urasandi auzoko hainbat zonaldetan lurreko baldosak solte daude. Euria egiten duenean, ura pilatzen da baldosa azpian, eta zapaltzerakoan ur guztia gorantz irteten da, eta oinak busti egiten zaizkigu. Horrez gain, baldosak zaharrak dira eta laban egiten dute. Eskertuko genuke Urasandiko espaloiak egokitzea”.



I. URTEURRENA

## ALBERTO ORTUETA AZKARRETA



*Laster arte ezpainetan  
utzi gaituzu penetan  
orain gure ametsetan  
bizirik zaude benetan  
zeruko izarretan.*

2009ko otsailaren 4an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 6, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



## Alberto Ortueta IMHko lehendakari izandakoa omendu dute ikastetxearen 20. urteurreko ospakizunean

Krisiari aurre egiteko bidea prestakuntzan inbertitzea dela nabarmendu dute ekitaldian

**E**lgoibarko Erreminta Makinaren Institutuak hogei urte bete ditu, eta eguaztenean ekitaldi bat egin zuten, urteurrena ospatzeko eta Alberto Ortueta IMHko lehenengo presidentea izan zena omentzeko. Ortueta iaz hil zen, otsailaren 4an, eta erreminta-makinaren alde egindako lana eskertu zioten ekitaldian, haren omenezko plaka bat bistaratu.

Hogei urtean 30.000 langile eta langabe baino gehiagori eman dizkiote eskolak IMHn, eta, gaur egun, 365 ikasle ditu, 267 Lanbide Heziketan, eta gainerakoak, Ingeniaritzan. Erreminta-makinak, baina, “garai zailak” bizi ditu, Xabier Ortueta AFMko zuzendari nagusiak aitortu zuenez. Nazioarteko eskaera “nabarmen” gutxitu dela esan zuen, eta horri aurre egiteko, prestakuntzan inbertitzea ezinbestekoa dela nabarmendu zuen. “Hori izan da gure bidea, eta



hori izan behar da aurrerantzean ere”, esan zuen.

Ekitaldira jende ezagun ugari bildu zen, tartean Patxi Lopez lehendakaria, Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusia, Bernabe Unda Industria sailburua,

Gemma Zabaleta Enplegu sailburua, David Urzainki Lanbide Heziketako sailburuordea eta Javier Ruiz Enplegu eta Prestakuntzako sailburuordea. Era berean, Elgoibarko azkeneko lau alkateak ere han izan ziren.

### Kiroldegia bete egin zen Pirritx eta Porrotx pailazoak ikusteko



Bi saio egin zituzten Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek joan zen domekan, eta, guztira, 1.500 lagun inguru izan ziren *Irrien lagunak* saioa ikusten. Barre al-garekin batera, momentu hunkigarriak izan ziren, iaz hil ziren Ane Perez eta Kaiet Andueza gogoratzerakoan. Amaieran, muxuen zakua atera zuen Porrotxek, eta umeen muxuz beteta eraman zuen etxera.

### Brikolaje ikastaroak emango dio segida jostungintzari

Aste honetan amaitu da Zerikasik eta Gaztedia sailek antolatutako jostungintza ikastaroa. Hamabi lagun aritu dira guztira. Milucha Rovira izan da irakaslea, eta jostungintzako oinarriko lanak ikasi dituzte ikasleek. Besteak beste, ilbanatzen, botoia josten eta kremaiera ipintzen jardun dute. Datorren astelehenean brikolaje ikastaroa hasiko da. Interesatuak 943 748 271 edo 943 257 986 telefonoetan eman dezakete izena.





## Izena **Segundo Raigoso**



Segundo Raigoso, zineko akomodadore ohia hil da aste honetan 71 urterekin. Osasunez makal ibili da azkenaldian, eta otsailaren 1ean itxi zituen begiak betirako. 2008. urtean egin zion elkarrizketa BARRREnek (651. alean), eta Elgoibarko zinemaren ganean hainbat istorio kontatu zituen. Besteak beste, herriko zinemarki onena Odeon zela aipatzen zuen, eta Guardia Zibiltzako lekua gorde behar izaten zutela gogoratu zuen. Elkarrizketa hori [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) atarian irakurri daiteke (651. alean).

## Berba **Zozketa**

Astlehenean bukatzen da Txankakua merkatari elkartearen Gabonetako zozketako sariak jasotzeko epea. Hauek dira zenbaki saridunak: 13973 (ordezkoa: 68954), 76527 (ordezkoa: 35625), 03087 (ordezkoa: 81221), 53594 (ordezkoa: 14190), 56834 (ordezkoa: 49830), 29820 (ordezkoa: 21907), 96986 (ordezkoa: 05767), 42109 (ordezkoa: 74309), 16370 (ordezkoa: 30707) eta 01778 (ordezkoa: 40909).

## Irudia **San Blas opilen bedeinkazioa**

Otsailaren 3an, eguaztenean, izan zen San Blas Eguna, eta tradizioari jarraituz, elgoibartar askok bedeinkatu zuten San Blas opila. Horien artean, Pllar ikasteko ikasle eta irakasleak izan ziren. San Bartolome parrokiaren izan zuten ekitaldia, eta aurtengoa ekitaldi berezia izan zen: Pilar ikastetxea aurten itxiko dute, eta ikastetxe moduan egin duten azken bedeinkazioa izan da. 1942an ireki zituen atak ikastetxeak, eta ekainean amaituko da 68 urteko ibilbidea.



## **Tomas Aranberri apaizari urrezko intsignia jarri diote Perun laguntzeagatik**

San Viator kongregazioko apaizei urrezko intsignia eman die Peruko apezpiku-batzarrak, herrialdean egindako lanagatik, eta horietako bat Tomas Aranberri apaiz elgoibartarra izan da. 50 urte daramatzate Viatoroko apaizek Perun lanean.



*Tomas Aranberri, eskuman,*

## **Familia-konstelazioei buruzko hitzaldia eta tailerra**

Kemen belardendak antolatuta, familia-konstelazioei buruzko hitzaldia izango da otsailaren 11n. Eduardo Ibarria psikologoa izango da hizlaria, eta familian sortzen diren zailtasunei eta arazoei irtenbidea emateko oinarriak azalduko ditu. Hitzaldia, 20:00etan izango da, Kemen belardendan. Horrekin batera, hilaren 14an gai beraren bultzatutako tailerra eskainiko du. Zortzi orduko iraupena izango du. Izena emateko 943 744 031 telefonora deitu daiteke.

## **Abizenak euskal grafiaz jartzeko kapaina hasi du UEMAK**

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina hasi du, *Guk abizenak, zuk?* leloarekin, eta dei egin die euskaldun guztiei bere izanarekin koherenteak izateko, eta abizenak euskalduntzeko ([www.uema.org](http://www.uema.org)). Abizena aldatzea uste baino errazagoa dela nabarmendu dute.

## Santa Ana ermita ingurua konpontzea erabaki du Mendaroko udalbatzak, ahobatez

la 200.000 euro bideratuko dituzte luperian jausitako mendi-hegala konpontzeko

Urtebete bada luperia batek Mendaroko Santa Ana ermitarako bidea apurtu zuenetik. Ermitak berak tinko eutsi zion harkaitz gainean, baina aurreko alde guztia behera etorri zen, eta sarbidea itxi zuen. Mendaron ezaguna da oso Santa Ana, eta, askoren ustez, bera da herritarren artean ermitetan estimatuena. Eta ez alperrik. Izan ere, bertan ospatzen da herriko patriaren omenezko jai handia, uztailaren 26an. laz, hala ere, mendaroarren Trinitaten ospatu behar izan zuten Santa Anaren omenezko jaiak, artean konpondu gabe zegoelako bestea. Joan zen egunean, baina, Santa Ana ingurua konpontzea adostu zuen udalbatzak aho batez –EAJko bost zinegotzi, EAKo hiru eta PSE-EEko bat–.

Dirua izan zen hasieratik Santa Anako konponketei ez heltzeko arrazoi nagusia, Irune Berasaluze Mendaroko alkateak irailean BARRENI aitortu zionez. Orain, baina, Espainiako Gobernuak Enplegu eta Toki Sostengurako sortutako diru fondoak baliatuko du Mendaroko Udalak, obra hori egiteko. Herenegunera arteko epea zuen Udalak eskaera aurkezteko, eta baietza jasoko dutez aurrera, hilabete izango du lehiketara



aurkezten diren obra adjudikatze-ko. Hala, martxo erdialdera hasiko dituzte lanak, eta maiatz alderako bukatzea espero dute, “beranduenez, jaietarako prest izateko”.

Guztira, 198.810 euroko diru-laguntza da fondo horretatik Mendarori dago-kiona. Hortik, 13.000 euro proiektura eta zuzendaritza lanera bideratuko dute, eta gainerakoa jausi zen mendi hegala konpontzeko izango da. “Egindako ikerketen arabera, bidea konpontzea da zailena. Behin hori eginda, horma altxatzea erra-

zagoa ikusten dute. Oraindik ez daukagu proiekturik, eta ez dakigu nola izango den, baina jausitako harriak erabiltzeko aukera ere ikusi da”.

Kilimon errekek eta Deba ibaiak bat egiten duten lekuan dago Santa Ana ermita, gain batean. Eraikuntza xumea da, eta inon ez da ageri noizkoa izan daitekeen daturik, baina dokumentu gehienek gutxienez Erdi Arokoa dela jasotzen dute. Dagoen lekuan egonda, bailara osoa kontrolatzeko talaia izan zela uste dute zenbait adituk.

## Egoitz Mendikuteri egokitu zaio Aitor Etxeberriak ‘Egunkaria’-ren alde emandako koadroa

Aitor Etxeberria margolariak *Euskaldunon Egunkaria*-ren alde emandako koadroak badu jabea: Egoitz Mendikute mendaroarra. Abenduaren 24an egin zuten zozketa *Egunkaria*-ren aldeko Mendaroko herri batzordekoak, eta hilabeteko tartean zenbaki saridunaren jaberik agertu ez denez, ordezkoko zenbakiaren jabeak jaso zuen saria eguaztenean, Lurdes Rodriguez herri batzordeko kidearen eskutik.





## Avar eta Eztanda automodelismo elkarteei lagako die Udalak Ospas Gaingo futbol zelaia, bi urterako

Ospas Gaingo futbol zelaia Avar kirol klubari eta Eztanda automodelismo elkarteari lagatzea erabaki du Mendaroko Udalak, doan eta bi urterako. Nolanahi ere, bi urteko tartean, herrian futbol zelaia erabiltzeko beharrik sortuko balitz, kontratua bertan behera geldituko litzateke.

Kilimon futbol taldea desagertu zenetik, kirol zelaia ez zaio aparteko erabilerarik eman. Gaur egun, bazter lagata dago. Aldagelak eta taberna hondatuta daude zeharo, eta harmailek ere ez dute garai bateko itxurarik. Hala, gaur egun dagoen moduan laga beharrean, futbol zelaia erabilera bat ematearen alde egin du Udalak, bi elkarteon eskaera aintzat hartuta. Futbol zelaian zirkuitu bat atondu nahi dute elkarte horiek, bazkideek erabili ahal izateko. Udalak onartu du eskaera, baina futbol zelaia laga aurretik, proiektua bera eta sortu daitezkeen arrikuak saihesteko plana aurkezteko agindu



die. Era berean, egin nahi dituzten obretarako baimena eskatzeko ere eskatu die.

Aurkeztu beharreko dokumentuak aurkeztutakoan jarriko da indarrean izenpetutako kontratua. Hori bai, Mendaroko Udalak argi utzi die gaur egun uztaila aldera Ospas Gainen egiten diren plater-tiroko saioetan libre utzi beharko dutela eremu hori, eta obraren bat egitekotan,

plater tirokoek non jarduten duten kontuan hartu beharko dutela, haien jarduna ez oztopatzeko.

Automodelismoaren munduan, Avar eta Eztanda elkarteak erreferente dira, gaur egun, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, eurek direlako 1:5 eta 1:8 eskalako autoen Euskadiko Txapelketa antolatzen dutenak.

### Eskola egunetan, ikastolako patioa 18:30ak arte egongo da zabalik

Eskola egunetan, ikastolako patioa estalia 16:30etik 18:30ak arte zabalik izatea adostu dute Mendaroko Udalak eta ikastolak, baina erabaki hori ez da guraso guztien gustukoa izan.

Guraso talde batek ikastolako patioa eskola egunetatik kanpo ere zabaltzea eskatzen du, herrian dauden baliabideak ez erabiltzeari "lujo bat" irizita. "Ez gara lokal bat eskatzen ari (ez oraingoz), baizik eta existitzen den espazio bat guztioi zabaltzea. Ez gara lokal bat estaldu dezatela exijitzen ari, dauden horiek erabili ahal izatea baizik", arrazoitu dute *Mendaron guraso izate* izeneko blogean (<http://mendaronguraso.wordpress.com>). Ez daude Udalak eta ikastolak emandako arrazoiak besterik gabe onartzeko prest, eta argibide gehiago eskatzen dute, ikastolako obra egin arte zabalik egon zen espazioa erabiltzea ukatu dietelakoan.

laz arte, jolastokia eta kantxa zabalik egoten ziren asteburu eta opor sasoiari barne, baina ikastolako obra egiten ari zirenean itxi egin zituzten, segurtasunagatik. Obrak bukatu direnean etorri da eztabaida, eta hori argitzearen, Mendaroko udal agin-

tariekin eta ikastolako zuzendaritza taldearekin bildu da BARRREN, euren arrazoiak jasotzeko.

Ikastolak dio bere betebeharrak haurren heziketa bermatzea dela, eta espazio hori ikastolak duen baliabideetako bat dela. Hala, euren lanorduak bete ostean espazio hori zabaltzeak ekar ditzakeen arrikuak kontuan hartzeko eskatzen dute. "Gertatu izan zaigu astelehenean etorri eta patioa zikin eta zerrailak itxita topatzea, eta guk ezin izatea gure lana baldintza onetan egin. Ikastolak bermatu behar du baliabide guztiak ondo egotea, haurrak iristen direnerako, eta hori bermatzeko aukerarik ikusten ez badugu, ezin dugu halakorik onartu. Gure lehenasuna ikasleak direlako. Gauza asko daude kanpotik ikusten ez direnak."

Mendaroko Udalak, berriz, aitortu du dauzkan baliabideekin ezin dituela segurtasuna eta garbitasuna bermatu. Brigadan bi langile dituzte, eta "egiteko asko" herrian. Hala ere, ikastolako kantxara aparteko sarbide bat eraikitzeko asmoa dute, patioetik bereizi, eta kantxa beti zabalik izateko, kirol jardueretarako nahiz jolasteko.



# TAUPADAREN ISLADAK



Atzean: Nerea Gil, Aintzane Etxaide, Maria Angeles Zabala, Oihana Etxabe, Gorka Fernandez, Daniele Zelaia, Enkarni Migales. Erdian: Laura Odriozola, Aitor Gisasola. Makurtuta: Jose Mari Larrañaga eta Edurne Lasa. Jon Olivares falta da argazkian.

**Lau urte pasatu dira Taupada antzerki taldeak Elgoibarren azken ikuskizuna eskaini zuenetik. Horrek ez du esan nahi, baina, geldirik egon direnik: orain dela lau urte inguru hasi ziren Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga antzerki tailerra eskaintzen, eta, orduetik, han eta hemen makina bat obra antzeztu dituzte. Gaur gauean, *Isladak* lana taularatuko dute Herriko Antzokian.**

**Ainhoa Andonegi**

**U**rduritasunak eta ilusioak bat egingo dute gaur gauean Taupadako kideen bihotzetan. Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañagaren zuzendaritzapean, hamar aktore izango dira taula gainean, eta denak elgoibartarrak. Horietako bi (Nerea Gil eta Jon Olivares) tramoari lanetan arituko dira, batez ere, eta eurak izango dira Esketx batetik bestera agertokia prestatzeko arduradunak. Horrez gain, baina paper txikiren bat ere egingo dute.

Aktoreen bizipenetan oinarritutako lana da. Euren kezkek, ilusioak eta asmoak jaso dituzte, eta egunerokotasunean ohikoak diren gaiak jaso dituzte. Esketx laburretan irudikatuko dute obra, eta aktore bakoitzak hainbat pertsonaia antzeztuko ditu. Horietako batzuek elkarriketak izango dituzte, eta beste batzuek gorputz ekintza soilak. Ikuskizunari ez zaio benekotasunik falta, eta ikusleak identifikatuta sentituko di-

rela uste dute. Umore puntu bat dauka lanak, eta jende askori pentsatu eragingo egingo diola adierazi dute aktoreek.

## **Antzerki tailerra, terapia**

Adin eta bizimodu desberdinak dituzte Taupadak, baina antzerkiak batzen ditu. Antzerkirako zaletasuna dute komunean, eta bakoitza bere aldetik, Taupadak antolatutako antzerki tailerretara joaten hasi ziren eguenetan. Berehala egin ziren lagun, eta gustura joaten dira saioetara. Antzerki tailerra terapia modukoa dela adierazi dute aktoreek. Aste guztiko nekeari eta estresari aurre egiteko terapia, alegia, eta barixakua indarberrituta hasten laguntzen die. Aktoreek eskerrak eman nahi dizkiete Edurneri eta Jose Mariri, astero-astero erakusten duten pazientziagatik.

## Aktoreen bizipenak

Encarni Migales, Gorka Fernandez eta Aintzane Etxaide dira gaur gauean taula gainera igoko diren aktoreetako hiru. Batzuk antzerkigintzan esperientzia daukate, baina beste batzuentzako jende aurrean antzeztuko duten estreinako aldia izango da. Isladak lana taularatuko dute. BARREN astekaria eurekin egon da, eta gaur gaueko obraz hitz egiteaz gain, bakoitzak antzerkigintzan daukan esperientzia izan dute hizpide.

### ENCARNI MIGALES (41 URTE)

Orain dela urte eta erdi inguru hil zen Encarni Migalesen iloba istripu baten ondorioz. Familiako guztiak lur jota geratu ziren, eta lagun batek gomendatuta, Taupadaren antzerki tailerrera joaten hasi zen. Betidanik izan du antzerkirako zaletasuna, eta, gainera, ez da geldirik egoteko emakumea. Orain arte, gauza txikiak egin izan ditu antzerkian: “Umeak eskolan egindako antzerkiren batean parte hartu izan dut, baina gauza gutxi”. Gaur gauekoa izango da, beraz, bere estreinaldia, eta desiratzen dagoela aitortu du. Herritarren aurrean antzezteak ez dio erreparrorik ematen, eta mundu honetan jardutek, lotsa alde batera lagatzea dela garrantzitsuena adierazi du. “Niri bost axola zait niri buruz esaten dutena”. Bere ustez, bakoitzak badaki nolakoa den, eta besteek esaten dutenari kasurik ez egiten ikasi behar da. Hala ere, kritika konstruktiboak beharrezkoak iruditzen zaizkio. Gaurko lana-ekin jendea aho zabalik geratuko dela baieztatu du.

**“Bizitzako ezbehar baten ondoren  
hasi nintzen antzerkigintzan”**



### GORKA FERNÁNDEZ (34 URTE)

Urtebete pasatxo darama Gorka Fernandezek Taupadarekin lanean. Aurretik, baina, antzerkigintzan ibilitakoa da, Ekekei Elgoibarko antzerki taldearekin. Lagun batek AHTari buruzko lan bat prestatu zuen, eta obran parte hartzeko eskatu zion Gorkari. Kale antzerkia egin zuten lehenengo, eta ondoren, zenbait herritan antzeztu zuten. Bideoan grabatu zuten lana. “Neure burua ikusi nuenean, benetan gaizki antzezten nuela konturatu nintzen”. Hori hobetzeko asmoz hasi zen Taupadaren antzerki tailerretan parte hartzen. Hasi-eran lotsa apur bat sentitzen zuela aitortu du. Baina aktoreak euren artean ezagutu ez arren, berehala sortu zuten adiskidetasun giroa, eta horrek izugarri laguntzen duela adierazi du. “Barre asko egiten dugu, eta oso ondo pasatzen dugu”. Herritarren aurrean antzezteari ez dio bes-telako garrantzirik ematen. Herriko Antzokia jendez beteta ikustea nahi du. “Kritikaz-eko bada ere, jendea joan dadila gu ikustera”.

**“Bideo batean ikusi nuen neure burua, eta hura  
hobetzeko asmoz hasi nintzen Taupadarekin”**





## AINTZANE ETXAIDE (29 URTE)

Zarauztarra da Aintzane, baina sei urte daramatza Elgoibarren bizitzen, eta bere burua elgoibartzartzat dauka dagoeneko. Gaur gauekoa Taupadarekin egingo duen hirugarren lana da. Zarautzen egin zuten kale-antzerkia izan zen bere estreinako antzezlan, eta oso urduri egon zela aitortu du. Donostiako Victoria Eugeniako sotoan aurkeztu zuten beste lan bat, eta gaur, Herriko Antzokiko oholtzara igoko da. Gaztetatik gustatu izan zaio antzerkigintza, eta Taupadak eskaini dion aukera benetan eskertzen du. Argi dauka antzerkiaz bizitzea zaila dela, “ez dut uste gutako inork horrelakorik pentsatu duenik”. Elgoibarrek antzerkirako zaletasuna erakutsi duela uste du; “horren erakusle dira kanpoko antzerkiek izaten duten arrakasta”. Gaur gauean ere elgoibartarrek ondo erantzungo dutela espero du: “Taupadaren jarraitzaileak seguru han egongo direla, eta, antzerki mundua ezagutzen ez dutenak ere animatu nahi ditut”.

**“Taupadaren jarraitzaileak seguru Herriko Antzokian izango direla”**



## Zuzendarien esanetan



## JOSE MARI LARRAÑAGA ETA EDURNE LASA

Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga. Bi izen eta bi aurpegi ezagun Elgoibarko antzerkigintzan. Ikastaro monografikoak aspalditik antolatu izan ditu Taupadak. Besteak beste, zirku teknikak, malabareak eta hankapaloetan ibiltzen irakasten zuten. Baina azken lau urteotan antzerki tailer iraunkorra eskaintzen dihardute, eta urtean 102 ordu ematen dituzte. *Isladak* izena jarri diote euren azken lanari. Hiru hilabete eman dituzte lana prestatzen, eta ilusioz beterik daude gaur gauean herritarren aurrean antzezteko.

Talde heterogeneoa osatu dute, eta edozein lanetan bezala, “zuzendarien metodologiara moldatu behar izan dute aktoreek”. Diziplina, entzun beharra, konpromisoa eta inplikazioa ezinbestekoak direla aipatu dute zuzendariak. Sorkuntzan murgildu dira, eta prozesu horretatik irten da *Isladak* antzeztanaren gidoia. Antzerkigintzaren egoera beti konplikatu izan dela aipatu dute, eta orain are gehiago, baina, hala ere, elgoibartarrek primeran erantzungo dutela uste dute.

**“Elgoibartarrek primeran erantzungo dutela uste dugu”**



## Erretratu zaharra



1962

Aste honetako erretratuari Mari Carmen Fidalgo ekarri du BARREnera. 1962-63 ikasturteko argazkia da. Neska horiek La Milagrosa eskolakoak ziren. **Atzean, zutik:** Mari Carmen Fidalgo, Esperanza Babarro, Blanqui Agote, Elisabeth Urbieta, Mila Lersundi, Mila Astigarraga Goiartzun, Mila Sorazu. **Zutik, erdiko ilaran:** Maria Angeles Arantzamendi, Lourdes Arriola, Arantza Abasolo, Begoña Artze, Mari Jose Mugertza, Mari Carmen Jauregi, Juanita Idiákez, Inmaculada Argaya (irakaslea), Begoña Palacios, Mari Tere Urbina, Mila Ondartza. **Makurtuta, atzean:** Regina Lehr, Maria Luisa Epelde, Maria Perez, ezezaguna, Ana Mari Agerri, Ana Mari Zabaleta, Puri Gonzalez. **Markurtuta, aurrean:** Maria Asun Elustondo, Mari Jose Arakistain, Mila Astigarraga Osoro, Paqui Roa, Maria Angeles Atorrasagasti, Agustina Torres, Maria Angeles Leiaristi, Ana Luisa Etxaniz.

**Gure berbak** **Hiztegixa: adverbio batzuk (8)** Hona Elgoibarren erabiltzen diran adverbio gehixago:

♦ **TAJUZ:** Taxuz, itxuraz, egoki. *Tajuz berba ein bi'ok jende aurrian, e!*  
 ♦ **TAKIAN-POTIAN:** Sarritan, noiznahi. *Bil-bora ta, Donostiara ta, takian-potian jua biharra izate zaban. Mutill fiña bera.*  
 ♦ **TAKIAN-TAKIAN:** Tarteka-tarteka, denboran nahiz espazioan. *Nere denporan beti hortantxe ibili gea, ta oiñ eskuakiñ e, zerik, pañuri(k) pe, holaxe oiñ. Ta behetik goruzkuan ere kolpe eitxen, kolpe eitxen, takian-takian, kolpe eitxen. / Takian-takian, kolpe eitxen jauan keixa ontzixari. / Hik segi aurrera, eta takian-takian esola bat sartu bi'ok.*  
 ♦ **TONTAMENTIAN:** Asko uste izan gabe. *Tontamentian, amaittu jauu lana.*

♦ **TRABES:** Oker, zeharka. **Trabeska** ere bai.  
 ♦ **TXINTXILIZKA:** Zintzilik.  
 ♦ **TXOR-TXOR (jardun):** Onomatopeia. Asko hitz egiten dutenengatik esaten da. **Txor-txor jardun:** berriketan etengabe jardun. **Txor-txorrian jardun** ere bai.  
 ♦ **UGARI:** Asko. **U(g)eri** ere bai.  
 ♦ **URRIÑ:** Urrun. **Urruti** erabiltzen da askoz gehiago, baina edadetuek **urriñ** ere badarabilte, tarteka.  
 ♦ **URRUTI:** Urrun. **Urrutiko intxaurreak hamalau, gertura juandakuan lau:** Alegia, kanpoko ez daukagula beti besterik gabe miresen ibili beharrik.  
 ♦ **ZELA-HALA:** Nola edo hala. *Ein gendun*

*behintzat hillebetiori zela-hala, ta atzera etorri giñan.*

♦ **ZERRAU:** Itxi. *Probintzia-mugatik harutz eta mugatik honutz, ze alde dauan? Han dana bizkaitarra eitte juek zerrau, zerrau eitte juek.*

♦ **ZERUAN (moztu illia):** Ilea arras moztu. *Baiña askotan soldauan kastigua illia zeruan moztia izate zan.*

♦ **ZIHARRETARA:** Zeharka, alboka.

♦ **ZIHERO:** Zeharo, erabat. *Bi bizitza zian hor. Hau zauan zaharra. Eta ointxe dala hirulau urte berritxu ein naban dana zihero.*

Jesus Mari Makazaga



## Amsterdango orkestraren metal taldearen kontzertuak hasiko ditu Musika Bandaren 125. urteurreneko ekitaldiak

Kontzertua otsailaren 11n izango da, San Bartolome parrokiaren, 20:30ean

**M**usika Bandaren 125. urteurreneko ekitaldiak datorren egunean hasiko dira, Amsterdango Concertgebouw orkestraren kontzertuaren bidez. Espainian zehar ari da orkestra kontzertuak eskaintzen, eta hori aprobetxatuta, metal taldea etorriko da Elgoibarrera. Kontzertua San Bartolome parrokiaren izango da, 20:30ean hasita (egitaraua agendan).

Elgoibarko Musika Bandaren iritzi, lorpen handia izan da emanaldi hau lotzea, izan ere, munduko orkestra ezagunenetakoa da-eta. Gainera, Elgoibarkoa izango metal taldeak eskaintzen duen estreinako kontzertua.

Horrez gain, Elgoibarko Udal Musika Bandak hileroko kontzertua eskainiko du domekan, otsailak 7, Herriko Antzokian, eta han jarriko dituzte salgai Amsterdango taldearen kontzertuko sarrerak 5 eurotan. Kontzertu egunean ere salduko dituzte sarrerak ekitaldia baino ordubete lehenago Plaza Handian, eta Kutxaneten bidez ere erosi daitezke.

### Datozen kontzertuak

Musika Bandak egitarau zabala pres-



tatu du 125. urteurrena ospatzeko, eta urte guztian izango dira ekitaldiak. Izen handiko taldeak izango dira Elgoibarren. Besteak beste, Loureiroko (Portugal) musika

banda etorriko da apirilaren 24an, Bergarako ekainaren 12an, Liriakoa (Valentzia) abuztuaren 22an eta Bilboko Udal Musika Banda irailaren 25ean.

## Elgoibarko Izarrako atzo ibili ziren koplakantari baserrietan, eta bihar irtengo dira Etxegiña eta Mendaroko taldea



Azken urteotako ohiturari jarraituz, atzo, Santa Ageda bezpera egunean, irten zen Elgoibarko Izarra koplakantari baserrietan. Bi taldetan banatuta, ahalik eta baserri gehien koplatzeko ahalegina egin zuten, eta gauean Aiastia-San Migeleko elkartean egin zuten afaria, denak batera.

Bihar, Elgoibarko eta Mendaroko kaleetan egingo dute santa eskea. Etxegiña taldea Bolatokian bilduko da 9:00etan. Bildutako dirua Caritas elkartearentzat izango da.

Mendaron, hiru talde arituko dira Santa Agedaren omenekantuan. 45 lagun inguru irtengo dira hiru taldetan banatuta, eta aurtengo diru-bilketa Arno guraso elkartearentzako eta Santa Ana konpontzeko izango da.



## Ainhoa Lendinezek hirugarren postua eskuratu du Idiazabalgo lasterketan

la 700 korrikalarietatik, 57 emakumeak izan ziren

**A**inhoa Lendinez korrikalari elgoibartarrak hirugarren postuan amaitu zuen Idiazabalgo herri lasterketa, joan zen domekan, 41:33 denborarekin. Partaideek hamar kilometro eta 416 metroko ibilbidean hiru bira egin behar zituzten, herri barruko zirkuitu batean. Aldapa bat gainditu behar zuten tartean, eta horrek erabaki zuen lasterketa. Hotz handia egiten zuen, eta beldurrez joan zela adierazi du Ainhoa Lendinezek. Gauzak, baina, uste baino hobeto joan zitzaizkion, eta ondo amaitu zuen proba.

la 700 lagunek hartu zuten parte gutzira; horietatik, 57 emakumek. Lendinezekin batera, Mendaroko beste bi neskek ere hartu zuten parte: Maite



Maiores zazpigarren postuan sailatu zen 44:48 denborarekin eta Mari Carmen Seijas zortzigarrena izan zen, 45:40 denborarekin.

Urgazi Triatloi taldeak, beraz, ondo ekin dio denboraldi berriari.

## Eguraldi txarrari aurre egin behar izan zioten eskiatzaile elgoibartarrek Altitoy proban



Hamalau eskiatzaile elgoibartarrek hartu zuten parte joan zen asteburuan Altitoy eski proba garrantzitsuan. Eguraldi txarra iragarri zuten, eta proba bertan behera geratzekotan egon zen. Azkenean, baina, proba ahaztezina izan dela adierazi zuten partehar-tzaileek. Eguraldiaren ondorioz, ibilbide berria prestatu zuten antolatzaileek, eta oso polita izan zela azaldu dute. Elgoibarko eskiatzaileak aho gustu onarekin itzuli ziren etxera.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Laudio 0 (3. maila)  
 Elgoibar 0 – Zumaia 1 (Pref.)  
 Elgoibar 1 – Euskalduna 2 (Jub.)  
 Usurbil 2 – Elgoibar 4 (Kad. A)  
 Elgoibar 3 – Soraluze 2 (Kad. B)  
 Urola 2 – Elgoibar 4 (Inf.)  
 Elgoibar 3 – Añorga B 0 (Txiki)  
 Eibar C 2 – Elgoibar 4 (Neskek)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch 4 – Inter Euskal Sofa 0

### SASKIBALOIA

Anboto Elg. 22 – La Salle Astigarraga 27

### ESKUBALOIA

Kukullaga 33 – Grupo Eibar Elg. 30 (Jub. neskek)  
 Kukullaga 32 – IMH Elg. 26 (Kad. neskek)  
 Aloña Mendi 20 – Tecnifuelle 21 (Sen. neskek)  
 Ikus Elg. 32 – Pakita altzariak 4 (Inf. neskek)  
 Astigarraga Elg. 13 – Ibaiondo 13 (Inf. neskek)  
 Txarriduna Elg. 8 – Amenabar 40 (Inf. mut.)  
 Amenabar 12 – Bankoa 22 (Inf. mut.)

## AGENDA

### SASKIBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 6

13:00 Anboto – Andraitz

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 6

11:00 Elgoibar – Behobia (Kad. A)

16:00 Elgoibar – Anaitasuna (Neskek)

18:30 Elgoibar – Lagun Onak (Ohereko inf.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 6

11:45 Ikus Elg. – Ereintza (Inf. neskek)

16:30 Tecnifuelle Elg. – Askartza (Sen. neskek)

18:30 Alcorta Elg. – Ereintza (Sen. mut.)

**LANA**

**ESKAERA**

• 43 urteko emakumea, erizain laguntzaile tiuluarekin, nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Euskeraz badaki.

☎ 678 117 022 82 ( 20.00etatik 22.00etara)

• Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 679 231 950

• Emakumea, edozein lanetarako prest.

☎ 649 023 534

• Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest.

Erizain profesionala. ☎ 649 008 036

• Emakumea, adin nagusikoak zein haurrak zaintzeko prest. ☎ 618 377 283

• Neska euskalduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsalde, jai egunetan eta astebukaeretan. Klinika Laguntzaile titulua du.

☎ 943 748 209

• Gizona, lanerako prest, edozein gauzetan: garbiketa, elektrizitatea,... ☎ 606 612 834

• Klase partikularrak ematen dira maila eta ikasgai guztietan, ingelesezko klaseak ere bai. Adin guztietan.

☎ 652 763 264

• Ordenagailuak konpontzen dira. Prezio merkean.

☎ 646 743 828

• Gizonezkoa, garbiketa lanak egiteko prest (portalak, bulegoak,...). Auto propioa. Edozein ordutegi.

☎ 605 800 582

• Emakumea, nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta sukaldari laguntzaile izateko prest. ☎ 671 343 612

• Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest. Erizain profesionala. ☎ 649 008 036

• Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest.

☎ 660 511 781

• Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Psikologia ezagutza. Interna edo externa.

☎ 635 313 375

• Emakumea, lanerako prest: umeak zein nagusiak zaintzen, sukaldari laguntzaile, garbitzailea edo zerbitzari lanetan... ☎ 606 564 293

**ESKAINNTZA**

• Ingeleseko klase partikularrak emateko pertsona behar da, D.B.H. 1.maila ☎ 608 312 572

• Astean behin edo bitan baxu klaseak emango dizkidan norbaiten bila nabil. ☎ 652 718 421

• Zerbitzaria eta sukaldari laguntzaile behar dira.

☎ 943 743 196

**ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

• Elgoibar erdigunean pisua salgai. Bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, terraza handia eta garajea.

☎ 685 724 553

• Ganbara alokagai, 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. San Frantzisko kalean.

☎ 639 017 752

• Basarte kalean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainu-gela, egongela eta sukalde. Egoera onean. Berria. Altzariekin. Garajea eta trasteroa.

☎ 669 627 655

• Santa Ana kalean etxea salgai, sukalde, egongela eta 3 gelarekin. ☎ 639 318 477

**GARAJEAK**

• Garaje itxia alokagai Jausoron. Plazatik gertu.

☎ 669 022 573

**BESTELAKOAK**

• Rocioko Ama Birjinaren urrezko domina galdu zaitzine inguruan. Norbaitek bilatu badu mesedez itzuli. Gaisotasun larria dut eta garrantzitsua da niretzat.

☎ 943 743 163

• Bi mexikano mozorro saltzen ditut, gizonezkoena eta emakumezkoena. Behin bakarrik erabiliak.

☎ 943 740 079

• Labadora bat saltzen da, Edesa markakoa. Egoera onean. Prezioa: 100 euro.

☎ 679 767 589

**Otsailak 13, Zapatua, 23:00etatik**  
**Musika Animazioa**  
**00:30ean 16 urtetik gorakoentzat**  
**Mozorro eta Koreografia lehiaketa**

**01:30ean:**  
**Sari banaketa eta ondoren musika**

Talde Sariak:  
 1.saria: 275 euro  
 2.saria: 175 euro  
 Banakako Sariak:  
 1.saria: 125 euro  
 (1 edo 2 pertsona)  
 Koreografia onenari: 125 euro  
 \* sariak eman gabe gera daitezke

**MADALAKO PARKEAN**

Mozorro lehiaketan parte hartzeko izen-ematea Elgoibarko Izarax edo eganean bertan, madalak, 00:00etatik aurrera izango da. Lehiaketan musika beteazitekin bat bezala badazue, 00da ekarztean eskeretako gurutze

Antolatzailea:  Babeslea: 





• Zorionak, **bikitina**, astelehenean 2 urte egingo dituzulako. Domekan ospatuko dugu eta koro handi handia prestatuko dizugu.



• Zorionak, **Ane!** Igandean 2 urtetxo! Muxu pila bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Jokin**, domekan urtebete egingo duzulako. Muxu handi bat etxekoan, eta Maddiren partez.



• Zorionak, **bihotza**, zure lehen urtebetetzean. Bereziki, Malen eta Eiderren partez. Pa!



• Zorionak, **Unax**, gaur 4 urte egin dituzulako. Ondo pasa eguna. Familiakoan, eta bereziki, Beñaten partez.



• Gaur urtebete, **Garli** Zorionak eta patxo handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **sorgintxo**, hilaren 9an urtebete egingo duzulako. Aittitta eta amaren partez.



• Zorionak, **Eneko**, etxeko denon partez zure 3. urtebetetzean.



• Zorionak, **Udane**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Narrea**, otsailaren 9an 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **kuttuntxo**, etxekoan, eta bereziki, Ainhizeren partez.



• Zorionak, **Alejandro**, martitzenean 11 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki, Adrianaren eta Pedroren partez.



• Zorionak, **Laura**, eguaztenezan 10 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Nerea**, gaur 3 urte egin dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Ikerren partez.




• Zorionak, **Ander**, asteartean zure eguna izan zelako. Muxu asko familiakoan, eta bereziki, anaia Gorkaren partez.



• Zorionak, **Narrea**, muxu handi batekin zure urtebetetzean! Familiakoan eta bereziki, neba Galdarren partez.




• Zorionak, **Nora**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Maitasun handiz, familiakoan eta bereziki, gurasoen eta Aneren partez.



• Zorionak, **printzesal** Egun ona pasa datorren astean! 5 muxu potolo gurasoen, eta bereziki, Uxueren partez.



• Zorionak, **Nahia**, gure printzesari, gaur 4 urte egingo dituzulako. Muxu bat familiakoan partez.



• Iritsi da zuen eguna, **bikotel!** Zoriontsuak izan! Familiakoan eta koadrilakoan partez.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.** Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



**2009/2010**  
**MATRIKULA LIBREA** Otsailaren 10etik martxoaren 2ra  
**HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA**

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**  
 Jardinetan, 3 - 20600 Elibar

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) orrian.  
 Argibide gehiago: [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) orrian edo 943 200 618 telefonoan.



## OKINDEGIA

7 domeka **BOLINTXO**

## FARMAZIAK

### 24 ORDUZ

- 5 Ibañez
- 6 Garitaonandia
- 7 Garitaonandia
- 8 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 9 Fernandez
- 10 Yudego
- 11 Zabaleta
- 12 Etxeberria (*Errosario*)

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 5 barixakua

### *Antzerkia* 22:15 'Isladak'

Taupada antzerki taldeak *Isladak* antzezlan taularatuko du.

Herriko Antzokian.

## 6 zapatua

### *Santa Ageda* 8:30 Santa eskea Mendaron

Mendaroko 45 lagun irtengo dira kaleetan eta auzoetan koplak kantatzera.

### 9:00 Santa eskea Elgoibarren

Etxegiña taldekoek herriko kale eta auzoetan jardungo dute koplakantari.

### *Mus jokoa* 16:30 Euskal Herriko txapelketa

Euskal Herriko mus txapelketaren kanporaketa jokatuko dute Kimetx elkarteak.

## 7 domeka

### *Musika* 12:30 Musika Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua

eskainiko du, Herriko Antzokian. Ohiko egitarauan, Etxegiña taldeari eskainiko diote pieza bat, santa eskean 85. urtez jardungo dutelako aurten.

1. *Chiclanera*, pasodoblea (Vega)
2. *Katuska*, fantasia (P. Sorozabal)
3. *Un dia en Viena*, obertura (Fr. Von Supé)
4. *Euskal Kantak*, selezioa (P. de Alberdi) Etxegiña taldeari eskainita.

## 11 eguna

### *Hitzaldia* 19:00 Sare sozialak

Herri Eskolako eta Institutuko guraso elkarteak antolatuta, *Zer jakin behar dute gurasoek sare sozialei buruz?* hitzaldia izango da. Kultur Etxean.

### *Hitzaldia* 20:00 Familia-konstelazioak

Kemen belardendak antolatutako ikastaroa izango da. Hizlaria, Edurado Ibarmia.

### *Musika* 20:30 Kontzertua

Musika Bandaren 125. urteurrena dela-eta, Concertgebouw

orkestraren metal taldearen kontzertua izango da. San Bartolome parrokian.

### Lehen zatia:

1. *The Earle of Oxford's March* (Byrd William/Elgar Howarth)
2. *Susato suite* (Susato Tylman/John Iveson)
3. *Canzona Seconda* (Gabrieli Giovanni)
4. *Concerto Grosso* (Derek Bourgeois)

### Bigarren zatia:

1. *The arrival of the queen of Sheba* (Haendel Georg Friederich/Paul Archibald)
2. *Sonate for M.W.* (Wagner Richard/Jeurissen)
3. *Crucifixus*, 4 tronboi (Lotti Antonio)
4. *Greensleeves* (Elgar Howarth)
5. *Hudson Sinfonia* (Benjamin C.S. Boyle)
6. *Petite Suite*, 4 tronpa (Henri Tomasi)
7. *Gershwin selection* (Gershwin George/Richard Bissil)
8. *Caravan* (Duke Ellington/Richard Bassil)



### LUDOTEKAKO EKINTZAK

Otsailaren 12an, barixakua, mozorro festa!

Askaria, mozorro lehiaketa eta giro aparta!

Jantzi zure mozorrorik onena, eta etorri!  
Primeran pasatuko dugu!



### GAZTELEKUKO EKINTZAK

Sukaldari gazteok, domeka honetan San Blasak egingo ditugu gaztelekuan!

Jantzi amantala eta animatu!!!!

### «Que fue de Los Morgan»

6, zapatua: 19:00/22:15

7, domeka: 19:00

8, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2009. Zuzendaria: Marc Lawrence. Aktoreak: Hugh Grant, Sarah Jessica Parker, Sam Elliott. Iraupena: 103 minutu.

Bikote bat hilketa baten lekuko izan da. Orduan, urruneko herririka batera joango da bizitzera, mehatxuetatik ihesi. Istorioa umorez kontatua dago.



PREST

**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

# ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE OTSAILAK 6** larunbata - 11:00

Enpresagintza Fakultatea

**OÑATI OTSAILAK 11** osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**ESKORITAZA OTSAILAK 18** osteguna - 18:00

ARETO NAGUSIAN

etorri  
aurretik  
izena eman!



**902 110 436 - [www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)**

# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Automozio ikastaroa

Norentzat: Emakumeentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-02-08  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: Pitxintxu liburu-dendan

### Antzerki tailerra

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Euskara  
Noiz: Eguenetan  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: 943 743 655 (Taupada)

### Oinarrizko brikolajea

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Kontsultatu  
Hasiera data: 2010-02-08  
Non: Elgoibarren  
Izena emateko: 943 748 271 edo 943 257 986

### Autoentzako osagai elektronikoak

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-02-22  
Non: Elgoibarren  
Izenemate bukaera: Astebete lehenago

### Azalaren zainketa eta makillajea

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-02-24  
Non: Mendaron  
Izena emateko: Kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

«Alvin y las ardillas»

7, domeka: 16:30

«Yo tambien»

(Ongarri zine-kluba)

11, eguena: 21:30

Espainia, 2009. Zuzendaria.: Alvaro Pastor, Antonio Naharro. Aktoreak: Lola Dueñas, Pablo Pineda. Iraupena: 105 minutu.

Danielek 34 urte ditu, eta unibertsitate titulu bat lortu du, Down sindromea duen arren. Lanean hasten denean, lankide batekin maiteminduko da.



# Argazkiak

## San Juan Bosco eta IMH egunak

European ospatu zituzten Elgoibarko ikasleek eta irakasleek San Juan Bosco eta IMH egunak, joan zen barixakuan. Euriak, baina, ez zituen antolatutako ekintzak eta ondo pasatzeko gogoia zapuztu. Argazkiotan jaso dugu ospakizun horien kronika.

Igelaren jokoan abilezia handia erakutsi zuten IMHko ikasleek eta langileek.



Mutilak ere sukaldean trebeak direla erakutsi zuten San Juan Bosco egunean.



Jende asko bildu zen San Rokeko aldapan gottibeherak ikusteko.



Berrikuntzak izan dira aurten IMH egunean, eta kirol proba berriak egin dituzte.



Lehia bizia izan zen IMHko ping-pong txapelketan.



Patata tortillari buelta emateko arazorik ez zuten izan neska hauek.





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14-16 behea  
☎ / Faxe: 943 74 10 71

### García

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilloia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxe: 943 74 73 12  
www.fjlodoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxe: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76/608 774 032



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04

### Lanusta

Etxe barruko erreformak  
☎ 636 375 323



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia  
☎ 943 74 30 94



## Sarrailagintza

### Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)  
☎ 943 701 391  
www.giltzak.com



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Koleorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87





# ikastolak

etorkizuna ereiten



aurre-matrikulazioa

otsailaren 1etik

otsailaren 12ra

943 744441

[elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)



Ikastolen Elkartea

[www.elgoibarikastola.eu](http://www.elgoibarikastola.eu)



**elgoibar ikastola**



Eskola  
Iraunkorraren  
Ziurtagiria